

Jose Mari Larrañaga Azkarreta
Oñati, Gipuzkoa
(1944)

Aurkibidea

Biografia



Berezao auzoko Santa Lutzia baserrian jaio zen 1944an. Ama bertakoa zen eta aita Bergarako Elorregi (San Prudentzio) auzokoa. 4 anai-arrebatatik zaharrena da bera. Auzoko eskolan ibili zen 14 urtera arte eta horren ostean osabari laguntzen zion baserriko lanetan. 15 urterekin zotz edo palillo-fabrika hasi zen lanean eta 45 urte egin ditu bertan.

Zintak

ONA-070

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-01-16
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ONA-084

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa - Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-03-18
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Ermita zaintzailea

- **Erref:** ONA-070/001
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

1944ko apirilean jaio zen. Farretxera eliza zaintzera etorri omen ziren Azkarreta baserritik senar-emazteak. Hortik datorchio bere amaren abizena. Aita bergararra zuen. Ermitaren zaintzailea. Santa Lutziaren argazkiarekin etxerik etxe joaten zen bere lana kobratzera. San Martingo zaintzailea ere ibiltzen zen San Martinentzako arto eta gari eske.

Transkripzioa

- Jose Mari Larrañaga Azkarreta.
- Eta ze egunetan jaiotakua zara?
- Ba apirillian hamarrian milla beratzirehun ta berrogeta lauan.
- Azkarreta hire ama nungua zuan?
- Azkarreta, hemengo bertako baserrikua. Apelidua Azkarreta.
- Ama zan hemengua, Santa Lutzia baserrikua?
- Bai, Azkarreta uste dot datorrela, hau sasoi baten zan, faerretxia esaten otsain honi, ermittia zainttuaz, eta orduan etorri ziran Azkarretatik matrimonion bat baserri hontara elizia zainketako. Eta Azkarreta apelidua ekarri zaben.
- Azkarreta, baiña Azkarreta baserritik edo beste lekutik...?
- Azkarreta baserritik baiña oin bostehun urte-edo. Hola esaten daue, entzunda.
- Klaro, lehen etxien izena izaten zan askotan apelidua, ez?
- Aitta berriz Bergarakua, San Prudentziokua. Larrañaga.
- Eta zela esan dozu, faderretxia?
- Faerretxia, hori esaten otsain, ermittiari, ermittien kargua hartzeko, eta

gero itten xuan auzuan, konjuru bat moduan, holako zer bat xauan, Santa Lutzia argazkixakin, eta harekin etxerik etxe batzen zuan garixa edo babia edo zeozer, ermittien...ba dirurik nola ez zan, ba ordezkua zeozer...

- Ermittia zainketiarren...
- Auzuak zeozer ordaintzen xuan baiña...
- Bera faten zuan argazkitxu horreaz...
- Bai.
- Etxerik etxe.
- Etxerik etxe, urtian... Baba garaixen babia eta garixen garaixen garixa eta urtian bi edo hiru aldiz. Eta aparte baserrixa eukian eta euren terrenuetan, terrenotxo bat zuan, asko ez.
- Eta farretxe esaten xakon?
- Farretxe bai, Zubillagan be hantxe xaok farretxe. Gure tio zanari betik 'farra' esaten otsain. Farretxe, elizien kargua eukittek.
- Hortik geldittu zan aurrekuandik ya gaitzizena geldittu zan, ez?
- Ez, Azkarreta apelidua zan, itxuria, zaukein orduan ekarri zabena.
- Oseake abade etxe eta farretxe orduan diferentia dira.
- Diferentia, bai.
- Abade etxia...
- Pixka bat dok horrek sostenttaiten dauen horren moduan, baiña diferente. Bata dok abade etxia, kalia dauena, baiña honi faerretxia. Gauzak, lehenako ohiturak. Hi San Martingua ez jakiat akordaitten haizen. San Martingo ha hil zuan. Residentzia hil zuan gaiñera. Han etxetxua oin gaztetxia in dauena, San Martingo ermitta onduan dauena. Hangua be ibiltten zuan hemen etxerik etxe San Martiñentzako garixa eta artua batzen. Ba zeozer, laguntza.
- San Martin horrek ogixa ta jaten xuan behintzet, e?

2. 40 ume ikasgela berean

- **Erref:** ONA-070/002
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:03:26. **Bukatu:** 00:06:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Berezaoko eskolan ikasi zuen 14 urte arte. Gero baserrian geratu zen eta 15 urterekin hasi zen zotz (palillo) lantegian. Eskolan Rosita Aramendi irakaslearekin 40 ume inguruk ikasten zuten gela berean. Bi urtetik 14 urtera arteko umeak ibiltzen ziren. Hiru maistra izan zituen; hirurak Oñatiko euskaldunak izan arren, eskola erdaraz irakasten zuten. Euskaraz egiteagatik ez zuten zigorrak jasotzen, baina bai beste arrazoi batzuegatik.

Transkripzioa

- Eta hemen eskolia auzuan zeguan edo zu...?
- Baita, eskolia hemen zeguan, guk eskolia hemen ikasi geben. Guk ikasi gebena.
- Zenbat urte arte egon ziñan zeu eskolan?
- Eskolan hamalau urte arte. Eta hamalau urte kunpliu nittuanian, ba ya eskolatik atera giñen, baserriko lanak itten. Tiori eta gurasuairi lagunketan. Eta gero hamabost urtekin hamasei in barik fabrikara, palillotara lanera, eta gaztetan ba lehenao akordaitten naiz horreik komuniua in gebenetik eta zeozer baiña asko ez.

- Eta eskolan ze maixo, ze maixu-edo euki zeuen?

- Maixu euki giñuan Rosita Aramendi. Hori maestria edo zuan, eta egoten gitzuan berrogei bat, batzuk bi urteko umiak eta beste batzuk hamabi-hamalaukuak.

- Danak alkarrekin?

- Danak alkarrekin.

- Neska eta mutil.

- Bai. Baikotza bere illaratan, edade batekuak illara baten, bestiak beste illara baten, bestiak beste illara, lau illaratan banatuta. Rosita Aramendi eta gero beste bat euki giñuan Maria Anjeles Goñi, ha be bai. Eta Rosita Aramendi gaixo egon zuan urte bete-edo, pulmoitako edo ez dakit zeozekin, eta orduan euki giñuan Miel Etxegoienen andria, Maria Axun Arzuaga. Ha be maestra eukittakua.

- Hori Oñatikua behintzet, beste bixak ez.

- Ez, bestiak be Oñatikuak.

- A, bai?

- Maria Anjeles Goñi; Bedia rekadistia, Donostira faten zana?

- Bai.

- Haren andria. Oin hor Euskal Telebistan itten dau lana alabiak.

- Bai.

- Haren ama. Potola bat fuerte bat.

- Bai, akordaitten naiz zein zan. Aiba!

- Ha maestra tokau xakun.

- Eta euskeraz edo erderaz jasoten zittuein?

- Erderaz. Guk eskola dana erderaz ikasi geben. Eta eskola gehixen dotriña eta "historia sagrada". Oin dana ahaztuta dakot baiña.

- Baiña hori zan mamiñori.

- Bai, mamin fuertiena, ba! Gero horixe, "sumar, restar, dividir, leer", matematikak, horreik danak.

- Baiña eurak euskaldunak ziran, ez?

- Danak, guztiz euskaldunak.

- Eta zueri ez otsuen lagatzen euskeraz egiten.

- Ez, euskeraz ez oskuen lagatzen.

- Iñungo kastigorik-edo izaten zeuein euskera ittiatik?

- Ez, euskeraz itteatik ez, baiña ba kastiguak bestela bai, hola geizki portaitten giñanian hola, paretara begira eskuak jarri hola ta aurrera begira.

- Libururik eta ez otsuen ifintten eskuetan?

- Bai, hemen liburuak, pixuaz, segun zelako kastigua zan, ba gehixau edo gutxiau.

3. Eskola nazionalak Berezaon

- **Erref:** ONA-070/003
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:06:22. **Bukatu:** 00:08:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Ostegun arratsaldeetan jai izaten zuten eskolan, baina zapatu goizean eskolara joaten ziren. Eskola oraingo elizpean zegoen. Gero aurrefabrikatutako pabiloi batean egon ziren eskola nazionalak. Duela 30 urte inguru itxi zuten Berezaon auzoko eskola. Kaletik ere ikasle asko etortzen ziren.

Transkripzioa

- Eta zelan, ze itten zeuen, astelehenetik oingo moduen, ez?
- Bai, astelehenetik ba etxia han geukan, bazkaittera etxera, maestriak be egoten zanak hemen baserrixen bazkaitten zaben jeneralian, geurekin batera. Eta ba zapatu goizian be eskolia egoten zan, zapatu arratsaldia libre, ostegun arratsaldia izaten zan, eguena, hori jai hartzen zan, hori izate zan dotriña edo kalera juateko-edo hori jai egoten zan.
- Eta zapatu goizian?
- Zapatu goizian eskolia. Goizian beratzittatik hamabitta erdittara edo hola izaten zan, hori izaten zan.
- Eta eskolia hemen berta zeuan? Ermittia dauen lekuan?
- Bai, oin hor portiko bat dauen buzoiak eta dabena eliza kontrán, hor zan elizia, beste lokal bat auzuak egindakoa, eskolia.
- Ondiok badao arrastorik horrenik-edo...?
- Ez, hori desagertu egin zan. Hori Julian Martes hona etorri zanian, Juliantxo, Loiolako jefia, ha etorri zanian gaiñian bibiendia egitteko hasi zan eta gero udaletxiak ez otsan utzi, teillatua kendu otsien eta “ruina” geldittu zan. Azkenian geuk auzuak kendu eta in geben elizpeia esaten dana oin.
- Ha behian, elizan oste hori?
- Bai, elizaren aldamera, aldameneko zera zuan. Eta gero in xuein horren ordia, hor goixen beste eskola bat “prefabricau” edo tubozko zer bat, Garaiñian inddako barrakoi bat. Horra etorri zuan “Escuelas nacionales”-edo sasoi baten. Gu ez gintzuan hor ibilli, gaiñera hor bandera española...
- Hori zuek eskolatik urten ta gero ya?
- Bai, gero zuan hori. Han bandera española eta dana jasoten xuein.
- Orduan noiz arte egon dira hemen Berezaun eskolak?
- Ba Berezaun eskolia, eskolia egon zuan, ba ointxe hogeta hamar bat urte kendu zuan guztiz.
- Jontxo!
- Bai, hemen kaletik etorten zuan jenta asko eskolara, hona.

4. Kaletik Berezaora eskolara

- **Erref:** ONA-070/004
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:08:55. **Bukatu:** 00:10:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Roke Azkune eta Trianako neska-mutilek Berezaoko eskolan ikasten zuten.

5. Mutilen jolasak

- **Erref:** ONA-070/005
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:10:11. **Bukatu:** 00:14:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Jolas-orduetan 'toke-torreka' edo 'pañueloka' jolasten ziren mutilak. 'Txingi-txanga'ka ere bai, hanka baten gainean antxintxiketan. Baita pilotan eta futbolean ere, Txorinean baloia bi txakur handitan erosita kuadrillan.</p>

Transkripzioa

- Eta bueno, ze, jolas-ordua-edo eukiko zenduen, deskantsua?
- Bai, jolas-ordua izaten zan hamaiketan. Zeozer etxetik eruaten bazeben haura janaz jolasteko ordu erdi.
- Eta ze jolas egitten zenduen?
- Ba jolasak izaten zan gehixen be mutikuak ibiltten ziren mutikuakin, neskatiak neskatiakin. Eta mutikuena izaten zan ba jolasa ba 'toke-torreka', ez dakit sekula entzun be in dozuen.
- Toke-torreka?
- Bai, toke-torreka izaten zan, ikutu, bata ikutu eta ezkiñara erretirau in bihar izaten zan...ez dot esan, ezkiñan baten bat jarri, ba paiñueluakin itten dan estilora, paiñueluakin itten zan, gero paiñueluen jokua izaten zan beste bat, bat itten zan paiñueluakin hemen jarri, bi talde ifiñi eta egoten ziran baten hiru eta bestian hiru, hemen bat, eta izaten zan 'bat' zenbakia, talde baikotzian egozen bat zenbakia euketak ta etortzen ziran hona eta paiñuelua leheningo hartzen zabenak ihes itten zezen bere tokira atzera, baiña honek harraipitten bazindduen zu atzetik, galdu itten zezen, fuera, eliminau. Ba hori izaten zan toke-torreka. 'Txingi-txangaka' be bai, hanka baten gaiñian.
- Orduen paiñueluena da toke-torreka.
- Bai, toke-torreka, hori dok.
- Toke-torreka paiñueluena.
- Toke-torre paiñuelua, hori esaten gotsan guk, behintzet gure,gure ohitturia.
- Eta gero txingi-txangoka esan dozu?
- Txingi-txangoka, hori izaten zan hanka baten gaiñian.
- Karrerak?
- Bai, karrerak itten ziren. Ezkiña baten jarri eta jun ta etorri zeñek, zeñek azkarrago egin.
- Bai, toke-torreka Joxe Marik esan eben, eta nik ez nekixen, ez neben ezaguketan joku hori, eta orduan nere lagun...
- Nik entzunda nekan izena. Guk jolasten gendun hortara, paiñueluakin-eta, baiña izen hori, toke-torreka izena...
- Guk be itten geben paiñueluan baiña hori izen hori...
- Guk toke-torreka. Oin beste batzuk igual beste izen bat, paiñuelo jokua be esaten otsain beste batzuk, ha paiñuelo zan, erdera nola asko erabiltten zan.
- Eta pelotan ta itten zenduen?
- Bai, pelotan be bai. Pelotan...
- Hemen auzuan pelotalekurik?
- Ez pelotalekurik ez, baiña hortxe elizpeian ba bertan, motza, lokal honen estiloko zerien, ba han ibiltten giñan. Bestela hola pelota formalik ez zan. Eta gero zerien, fubulian. Fubulian hor hariztuixan. Hori bai.
- Baloia eta nundik ateratzen zenduezen?
- Ba baloiak erregiak etorten ziren urtien behin ta hortxe, bata edo bestiak ondo zertuta eukitten geben. Eta erosi be in geben kuadrillan, Txoriñien, oin Mendizabal dana, Txori.
- Txoriñian, bai, bai.
- Akordaitten naiz, bi txakur haundi baloia.
- Zenbaten artian juntaitten zeuein?

- Ba bost-sein artian, bi txakur haundi zan, hoge zentimo.
- Pezetianak.
- Bai, pezetianak. Ordurako dirua.
- Baloia erosteko behintzet.
- Baloia erosteko.
- Eta pelotak?
- Pelotak askotan etxian egitten gittun.
- Etxian?
- Bai, izaten zan katuen hestia edo edozeiñena, konejuena be bai.

Hestiakin, gero harixakin ondo lotu eta gero narrua josi; hori amak edo aittak edo baten batek.

- Eta zela itten zan, hestia ipiñi erdixan eta sokiakin batu bueltan?
- Ez, hestia izaten zan, hestiakin itten zan bolatxo bat, horrek saka itteko.
- Botia itteko, ez?
- Bai, botia itteko, guk saka esaten gotsan baiña. Saka eraitteko. Bestela harixakin edo espadrapua, espadrapua amari edo baten bateri harrapo eta...

6. Neska-mutilen jolasak

- **Erref:** ONA-070/006
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:14:24. **Bukatu:** 00:17:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Neskek "sapakonetan" (tortolosean) eta lurrian marraztutako laukietan zehar harria bultzatzen egiten zuten jolas. Mutilek kaniketan eta "tronpuetan pottoka" ere jolasten zuten. Kanikak erositakoak edo etxean buztinez eginak izaten ziren. "Tokan" ere jolasten zuten batzuetan.

7. Sasoian sasoiko jolasak

- **Erref:** ONA-070/007
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:17:41. **Bukatu:** 00:20:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Bolatokirik ez da inoiz egon Berezaio auzoan. Neskek sokasaltoka jolasten zuten. Udaberrian "sapakonetan" (tortolosean) eta udazkenean sokasaltoka jolasten ziren. Txirikiletan udazkenean jolasten zuten, neskak eta mutilek elkarrekin.

8. Anaia zaharrenaren lanak

- **Erref:** ONA-070/008
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:20:27. **Bukatu:** 00:22:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Etxean lana zegoenean eskolara ezin izaten ziren joan. Batzuetan "itaurrean" ibili behar izaten ziren eta, bestetan, anaiarik zaharrenek umeak edo lapikoa zaindu behar izaten zuten gurasoek etxetik kanpo lanean baziharduten. Lau anai-arreba ziren, Joxe Mari zaharrena. Horregatik ikasi zuen berak eskola gutxi.

9. Gau-eskolan urteetan

- **Erref:** ONA-070/009
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:22:49. **Bukatu:** 00:24:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserría » Baserriko lanak » Baserrinari lotutako lanbideak

Laburpena:

Lanean hasi zenean beste lau urte egin zituen Joxe Mari gau-eskolara joaten. Bai Berezao auzoan jasotakoa eta bai gau-eskolakoa, eskola ordainduak ziren.

Transkripzioa

- Gero klaro, baserrixan lana zeuen ta, batzuk kalera juan ziren eskolara ta gu beheintzet hemen gelditu giñan. Eta handik hamabost urtekin ya fabrikara. Baiña gero jarraitu neban fabrikan lana egin eta beste lau urte 'gau eskolia' esaten gotsan, honeik Rosita hemen egon zan ba, maestra horrek eskola partikularra emuten eben,
- Hemen bertan, auzuan?
- Ez, han bere etxian, han Mendiko Kalen. Eta han beste lau urte, lanetik urten ta...
- Gau eskolia ze izango zan, illuntzixan edo hola.
- Bai, illuntzixan. Seiretan lanetik urten, bokadillo bat jan eta sei tt´erdietatik zortzi tt´erdittara bi ordu.
- Han be neska eta mutil ibiltten ziñazien?
- Bai, danok nahasi, nahastuta. Asko ez e? Zortzi, hamar bat lagun hola eukitten zittuan.
- Eta horreik, klase horreikatik pagau itten zeuein?
- Bai. Horreik ordainddu itten geuen.
- Baiña hemen auzoko eskolak eta horreik debaldekuak izango ziran, ezta?
- Honeik, ez, honeik be ordainddu itten zittuan.
- Bai?
- Gu ibili giñan denporan ordainddu itten zuan. Gero hor goixan jarri zan eskola nazionala, hori doan izaten zuan. Hemen asko ez baiña zeozer ordainddu itten zan eskolia, maestriari.
- Eta gau eskolatan zer, ikasketa jeneralak-edo?
- Bai, jeneralak, puxka bat matematika asuntuan ta idazten eta holako... Eta han be holako...batzuk oso saiatsuak izaten ziren baiña guk pittin bat, orduko diru asko ez baiña deziditten kanpora urteteko.
- Txikito bat hartu ta...
- Bai ba, txikitua-edo, txikitua baiño gehixau guk 'butanua' esaten gotsan orduan, hola naranjada moduko zera zuan, eta haura eraten giñuan.
- Butanua.

- Bai. Butanua esaten gotsan.
- Bai, goguan dakot.
- Zer zan baiña, naranjada-edo?
- Bai, naranjada zan, butanua, butanuen kolorekua zan. Butano esaten gotsan, "etara butano!" Eta halaxe.

10. Zotzak egiten 45 urte

- **Erref:** ONA-070/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:24:59. **Bukatu:** 00:26:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

45 urte egin ditu Joxe Marik "palillo" (zotz) lantegian lanean, 15 urterekin hasita. Arropa esekitzeko kakoak egiten zituzten garai batean. Zur lan astuna zen. Nafarroako Erriberatik ekarritako makal zura lantzen zuten gehien. Gai batzuetarako Urbasa aldetik ekarritako pagoa eta urkia ere erabiltzen ziren.

11. Zotzak egiteko prozesua

- **Erref:** ONA-070/012
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:29:17. **Bukatu:** 00:31:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Egurra hezean lantzen zuten. Zotzak ebaki eta gero lehortu eta leuntzen zituzten haize beroarekin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com